



## Hotza eta elurrari aurre eginez Egunkariaren alde

Astelehen iluntzean herritar ugari bildu ziren Sagardotegi kalean *Egunkaria Libre!* lelopean Madrileko Audientzia Nazionalen *Egunkariaren* aurkako epaiketa salatze eta auzipetuei babesa emateko.

2003ko otsailaren 20an, Juan del Olmo Espainiako

Auzitegi Nazionalen epaiketa aginduz, Guardia Zibila Egunkaria euskarazko egunkariaren egoitzak itxi eta hainbat lagun abilotu zituen.

Sei urte ondoren asteartean hasi zen Madrileko Audientzia Nazionalen Joan Mari Torrealdei, Iñaki Uriari, Martxelo Otamendi, Txema

Auzmendi eta Xabier Oleagaren aurkako epaiketa. ETAko kide izatea egotzi diete bost auzipetuei eta fiskalak, defentsak bezala, auzia ixteko eskatu badu ere, *Dignidad* eta *Justicia* eta AVT elkarteek salaketa ontzat hartu eta 14 urteko espetxe zigor eskaera egin du.

### Manifestazioa Bilbon eta autobusa Lasarte-Oriatik

*Egunkaria Libre!* lelopean manifestazio nazionala antolatu da bost auzipetuei babesa adierazteko eta epaiketa salatze.

Manifestazioa bihar izango da, abenduak 19 larunbata Bilbon, arratsaldeko

17:00etatik aurrera Autonomia kaletik.

Lasarte-Oriatik autobusa antolatu da Bilbora joateko, manifestaziora. Eguerdiko 14:45ean aterako da autobus zaharretik. Txartelak Jalgin eta Ttakun Kultur Elkartearen egongo dira salgai 10 euroren truke. •



**Somoto kasua ikerketzeko batzordearen eraketa onartu du Udalak /3**

### KIROLA/ 6

**ISU Leihoak taldeak Gipuzkoako ligako lehenengo postuan dago**

**Multimusikala: larunbat eta igandean, toki askotan, musika zuzenean /4-5**



## ERREKATXO JATETXEA

JAUNARTZE ETA BATAIOETAKO  
MENU BEREZIAK



• Eguneko menua

• Ostiraleko menua 8 euro

• Risteburuko menua enkarguz

Oria Etorbidea 4  
Tel.: 943 365557  
Lasarte-Oria

## Neure kabuz



4,74

Euro-kopuru hori da Lasarte-Oriako biztanle bakoitzak (17.696 biztanle gara guztira), batez beste, Lasarte-Oriako alkateari ordainduko geniokena 2009. urtean, duela gutxi irakurri nuen albisteko datuak oker ez badaude. Asko al da? Sarritan pentsatu izan ohi da norberaren soldata txikiegia dela, baina besteena, ordea, handiegia, ezta? Ekonomista batek esango luke langileari bere produktu marjinalaren arabera ordaindu behar zaiola, hau da, berak enpresan egindako ekarpenaren arabera, baina hori neurtzea ez da erraza izaten.

Aldiz, errazagoa da inguruko alkateek kobratzen dutenarekin konparatzea. Bi ondorio nabarmen atera daitezke hori egiten badugu. Batetik, espero genezakeen bezala, zenbat eta biztanle gehiago izan herrialde batek, biztanle bakoitzak batez beste alkateari ordainduko liokeena murritzten doa. Adibidez, Donostiako biztanle bakoitzak, batez beste, bere alkateari 0,46 euro ordainduko lioke "bakarrik". Bestetik, antzeko biztanle kopurua duten inguruko herrialdeekin konparatuz (Hondarribia, Tolosa, Hernani, adibidez), euren biztanleek batez beste euren alkateari ordainduko lioketena 2 eta 4,10 euro inguruan eongo litzateke. Lasarte-Oriako biztanleei, beraz, batez beste, beste herrialdekoekin baino garestiago aterako litzaiguke alkateari ordaintzea. Zergatik ote?

Beno, besterik ez... Datosen egunak direla eta, Eguberri zoriontsuak eta Urte Berri on bat izan dezazuen opa dizuet irakurle gutziori bihotzez.

**Iñaki Erasquin**

## Zorion-agurrak



**Judit**

Zorionak zure laugarren urtebetetzeari! Garazi eta famili guztiren partetik.



**Angel eta Antonia**

Zorionak zuen familian partetik eta muxu bana Naroa, Unai eta Leireren partetik.



**Xabier**

Zorionak, aurtan badira! Ondo pasa! Gurasoak, Josu eta Ane.



**Xabier**

Zorionak aitaxo! Muxu potolo asko Ane, Unax eta amatxoren partetik.



**Zuhaitz**

Zorionak familiaren partetik! Berezik biramona Mertxe-ren partetik. Muxu potolo bat.



**Zuriñe**

Zorionak printzea eta esku-bete muxu zure hirugarren urtebetetzeari.



**Ibone**

Zorionak Marina! Ondo pasa, baina gurekin ospatu. Muxu erraldoia ..... partetik.

## Guardiak

**Ostirala, 18**  
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6  
Tel.: 943 363549

**Larunbata, 19**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Igandea, 20**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567

**Astelehena, 21**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151

**Asteartea, 22**  
Rodríguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774

**Asteazkena, 23**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Osteguna, 24**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652istondo

## Telefonoak

**Osasuna / Larrialdiaik**

Osasun Zentroa ... 943 007960  
DYA ..... 943 464622  
Gurutze Gorria ... 943 363953  
Udaltzainak ..... 943 362442  
Ertzaintza ..... 943 288888  
SOS Deiak ..... 112

**Udala**

Erregistroa ..... 943 376055  
Euskarako Zerbitzua 943 376184  
Kiroldegia ..... 943376182  
Kulturetxea ..... 943376181  
Bakezko epaitegia . 943371629  
Zerbitzu Sozialak . 943376179  
Zentro Zibikoa ... 943363958  
KIUB ..... 943361605  
Udal euskategia ... 943361621  
Obrak eta zerbitzuak ..... 943 376180

## Azoka txikia

### Eskaintza inmobiliarioak

• Apartamentua salgai Lasarte-Orian. Egoera onean dago. Toki lasaian eta berritu berria. Bikotearentzat egokia. Tel.: 657 708 866.

### Salerosketak

• Mountain bike bizikleta bat salgai. 8-10 urteko haurarentzat da eta kalitate handikoa. Oso egoera onean dago. Salneurria 100 eurokoa da. Harremanetarako telefonoa: 656 781 177.

• Audi 100 bat saltzen da, 250 cc eta turbo diesela injekzio-sistemarekin. Baldintza onean eta ondo zaindua. Harremanetarako zenbakia, 687 851 713 (Bixente).

### Lan-eskaintzak

• Pertsona bat behar da hiru urteko haur bat zaintzeko. Ikastolan jaso eta bazkaria eman, eguerditi laurak arte. Harremanetarako zenbakia: 646 645 445

• Ingelesko magisteritzako 3. mailako ikaslea naiz eta lehen hezkuntzako zein DBHko lehenengo zikloko ikasleei klaseak emateko prest nago (ingelesa edota beste ikasgai batzu). Interesatuak deitu zenbaki honetara: 943372874/635720017 Urzi.

### Lan-eskariak

• Klase partikularrik ematen dira: euskara, lengoia, matematika, ingelese... Tel.: 943 362532.

### Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com  
Tel.: 943 366858 • Geltoki 4

\* Atal honetako oharrak, asteazken eguerdia baino lehen bidali behar dira.

### Jaiotzak

Eneko Arnaiz Sánchez, abenduaren 9an  
Laia Fernández Durán, abenduaren 7an  
Josu Armendariz Soage, abenduaren 7an  
Maialen balerdi Lizarazu, abenduaren 7an  
Eneritz Beitia Baez, abenduaren 6an  
Nahia Echenagusia Amonarraz, abenduaren 4ean



Omar Ez-Zaki Martinez, abenduaren 2an

### Heriotzak

Mª Pilar Urdampilleta Santa Cruz, abenduaren 15an hil zen Carlos Apezteguia Zapirain, abenduaren 13an 79 urte zituela  
Higinio Iglesias Villar, abenduaren 8an 80 urte zituela



## Gazte Informaziorako Bulegoa



www.gipuzkoangazte.info

Manuel Lekuona kulturetxea  
Tel.: 943 376181

### Irungo Udal Kontserbatoriorako solfeo irakasle lanpostu bat

Irungo Udal Kontserbatoriorako Solfeo Irakasle plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia. Bete beharreko baldintzak: 2.618/1996 Dekretuaren eta homologatuen arabera Solfeo Maila Ertaineko irakasle tituluaren jabe izatea eta 289/92 Dekretuaren edo antzekoen arabera Eusko Jaurlaritzaren 1. mailako

gaiakuntza izatea eta Euskarazko 3. hizkuntza eskakizuna.

Epea: 20 egun naturaleko epean deialdia BOEn argitaratu eta gero. Informazio gehiago Irungo Udalaren Hirritaren Arretarako zerbitzuan, Juan de la Cruz, Ensanche Plaza, Irun. Tel.: 943 50 51 52 eta web guñeak: www.irun.org eta https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2009/12/07/e0914188.htm.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

# Irregularitasunik bai ala ez?

Udaletxeko 17 zinegotziek aho batez onartuta, Somotora bideratutako laguntzetan irregularitasuna egon den aztertuko du komisio berezi batek

Asteartean, Lasarte-Oriako ospatutako batzarrean aho batez ezabatu zen kooperazio laguntzak aztertuko dituen komisio berezia osatzea.

Helburu zehatza du, Somoto, herrialde nikaraguarrek Lasarte-Oriatik jaso dituen diru laguntzak nola banatu diren azaltzea eta irregularitasunak egon diren edo ez aztertzea.

Astearteko batzarra EAJ, Hamaikabat, LOHP eta Ezker Abertzaleak eskatuta antolatu zen. Izan ere, kontu hartzaileak egindako informe baten arabera Somotora bideratutako dirua existitzen ez den entitate bati bidaltzen zitzaion eta hori argitu nahiarekin bertaratu ziren udal batzarrean.

Batzarrean PSOEek osotasunezko zuzenketa eskatu eta PPK testu alternatibo bat aurkeztu zuen.

Hasierako tirabirak gaindituta, eta bost minutuko atsedena eta gero, PSOEek zuzenketa bertan behera uztea erabaki zuen.

Eta azkenean, popularren alternatiba izan zen adostasuna lortu zuena.

## Onartutako proposamena

Jose Angel Encinasen proposamenaren arabera, komisioa 15 eguneko epean osatuko da eta akordioak lortzeko ahalmena izango du.

Komisioa alderdi politikoki bakoitzeko udalkide batek osatuko du, Ezker Abertzalea barne, eta talde osoaren proportzionaltasunaren arabera errepresentazioz. Era berean, Gobernu Batzarreko kide ez den udalkide bat izango du buru.

Bi hilabeteko epea izango du lan taldeak eginkizuna



Bost minutuko atsedendian, oposizioa egoera aztertzeko eta erabakia hartzeko bildu zen

aurrera ateratzeko. Hala ere, beharrezkoa izanik luzapena ere onartzen da.

Egutegi bat finkatuko da, non komisioa osatzen duten kideak behar duten dokumentazio guztiaz baliatuko diren, baita hau aztertu ere. Martxan dagoen auditoriako informeez ere baliatu ahal izango dira komisio kideak.

Ana Urchueguia, Lasarte-Oriako alkateak "ez dugu ezer ezkutatzeko eta ahalik eta azkarren kontu hau argitu nahi dugu," adierazi zuen.

Horregatik, komisioaren aurrean lehengo testigantza berarena izatea eskatu zuen. "Nire buruaren kontra esandako guztiak alkatetzatik botatzea dute helburu" gaineratu zuen Urchueguiak.

## Pleno aztoratua

Eztabaidan behin eta berriz zinegotzietan arreta deitu ziren Urchueguiak, gehienbat EAJ alderdiko zinegotzia den Estitxu Alkortari.

Era berean, oposizioa

kideak behin eta berriz kexu izan ziren ahotsa ematen ez zitzaielako.

Honetaz gain, Jexux Izetak hitza hartu zuenean, Urchueguiak moztu eta iheslaritzat jo zuen. "EAK eta Hamaikabatek gaur goizean adierazi didatenez, ez zaude ez bata ez bestearen barnean. Hemendik aurrera zinegotzi ez abskribitutzat joko zaitugu udalerean," aipatu zuen.

## Gobernuaren salaketa

Iñaki Mugica, sozialisten bozeramailearen arabera, mozio honen aurkezpenaren helburu bakarra "eraso, jazarpen eta kalumnia kanpainarekin jarraitzea da". HBren garaian hasi zirela egotzi zuen eta oraindik jarraitzen duela, baina garai horretatik "laidoak baino ez dira geratzen."

Somotoren diru laguntza kudeatzen duen fundazioak nortasun juridikorik ez izateak, ez duela zertan existitzen ez denik adierazten gaineratu zuen.

Lasarte-Oriako kirol, giza eta elkarte kultural askok ez dute nortasun juridikorik, eta diru laguntzak jasotzen dituztela gogorazi zuen. Beraz, dirulaguntzen araua bere osotasunean betez gero, asko izango ziren heretik desagertuko liratekeen ekintzak.

## Etxebizitzak eta Aminetou Haidar

Bestalde, asteazkenean ere ohiz kanpoko Udal Batzarra egon zen. Nahiz eta PP eta ezker abertzaleko zinegotziak falta, gai ugari aztertu ziren.

Batetik, Ricardo Ortega Gobernu Batzar Lokaleko

kide izateko izendapena baliogabetu eta Jesus Zaballos kide berria izendatzea; bestetik, Gizarte Zerbitzuetako sailaren izen aldaketa, hemendik aurrera, Gizarte Zerbitzuak, Enplegua eta Kooperazio saila izango delarik.

Era berean, 2009. urterako plantila organikoaren eta lanpostuen zerrendaren proposamena eta telefono mugikorraren zerbitzuak ematen dituzten enpresek udalaren jabari publikoaren erabilera pribatua eta aprobeztamendu berezia egiteagatik, tasa arautzeko ordenantza onetsi ziren.

Batzordeko puntu garrantzitsuenak, Lasarte-Oriako Babes Publikoko Etxebizitzaren erregimena Arautzeko Ordenantza onestea eta Aminetou Haidar aktibista saharauiarekin solidarizatzearena izan ziren.

Lehenengoan, Ogasuneko Batzordean EBak aurkeztutako hainbat emendakin berraztertuta eta atzera botatzea erabaki zuen Udalbatzarra. Horren ostean, Ordenantza berria onetsi zen eta orain GAOn argitaratu behar dute. Eta bertan hilabete egin ostean, etxebizitza nahi duten herritarren erregistroa irekiko da.

Bestetik, PSOEek, Ezker Batua-Berdeak eta EAJk mozioak aurkeztu zituzten, Aminetou Haidar aktibista saharauari elkartasuna adierazteko.

Eztabaidatu ostean, guztiek bat egin zuten Diputatuen Kongresuak asteartean adostutakoarekin eta EB eta EAJ taldeek proposatutako eranskin batzuekin. •

## ENPLEGUA

### Udala Eusko Jaurlaritzako Betikolan programan

Lasarte-Oriako Udalak lankidetzaren hitzarmena sinatu du Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako sailarekin. Honen bidez, udalerrira Betikolan programaren parte izango da.

Ekimenen lan-merkatura iristea erraztuko die diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonen.

Era berean, programak lan-merkatuan eskari handia duen arlo bat, adinekoen zaintza, baliatzea bilatzen du baita ezkutuko ekonomian kokatu izan den sektore bati duintasuna ematea ere.

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak programan parte hartzeko hautagaien lehen aukeraketa bat egingo du.

Ondoren, pertsona horiek Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzura bideratuko dituzte behin betiko hautaketa egin dezan.

Guztira, hamahiru izango dira bost bat hilabetetako hezkuntza ikastaroa izango dute eta, jarraian, sei hilabeteko kontratua egingo zaie.

Proiektu berritzailea eta esperimental da eta 30 Udalek parte hartuko dute. Ana Urchueguia alkateak parteida izatearen garrantzia azpimarratu du, izan ere, "hezkuntza da lanik ez duten eta gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonen eman diezaikegun erremintarik onena." •

## ELIZA

### Uriarte gotzaina pastoral kontseilu berriaren sorreran

Lasarte-Oriako bi parrokiak, San Pedro eta Arantzazuko Ama Birjinarena, Aginako eta Usurbilgoak bat egin dute. Pastoral kontseilu berri honen sorrera bedekatu eta honen ordezkari bere karguak emateko, Juan Mari Uriarte Donostiako gotzaina etorriko da Lasarte-Oriara.

Ospakizuna larunbatean izango da, arratsaldeko 19:00etan San Pedro parrokiaren eta 440. urteurrenaren azken ekitaldia izango dugu hau.

Honetaz gain, Uriarte gotzainaren agurra izango da ekitaldi hau, urtarilean bere kargua utzi behar baitu.

Era berean, Lasarte-Oriako fededunei jakin arazten zaie, hau izango dela larunbata arratsaldean herrian egingo den elizkizun bakarra. •



Babes Publikoko Etxebizitzaren erregimena Arautzeko Ordenantza onetsi zen.

# Heldu da Asteburu Multimusikala

**■** Zuzeneko musikaz beteko dira herriko tabernak eta Andatza plazako gunea ■ Herritarrak gonbidatuta daude larunbateko bazkari herrikoian eta igandeko paela janean parte hartu dezaten ■ Valentziatik talde handia dator, musikari, sukaldari, umorista, dultzainero...

Larunbat eta igandean zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango dute lasarte-orientatek eta Asteburu Multimusikaleraren kanpotarrek. Zuzeneko musikala izango da Andatza plazan jarriko den herriko zortzi tabernetan. Musika eskaintza zabalago izango da, guztira Euskal Herriko hainbat tokitatik eta kanpotik etortzako 30 talde ingurur hartuko du parte. Baina horrekin batera larunbat eta igandean Andatza beste hainbat ikuskizun eskainiko dira, otorduak emango dira, eta hainbat produktuk salduko dituen azoka bat zabalduko da. Multimusikala Kultur Elkarreko antolatzaileek lan handia egin dute eta orain herritarrek parte hartzea falta da.

Jon ALZOLA

**V**III. multimusikalaran egitaraua larunbat eguerdian hasiko da eta igandean gaurer arte luzatuko da eta ia erenik gabe. Larunbatean hainbat rock musika talde eta DJ izango dira Lasarte-Orian, Andatza jarriko den karpa buruan eta beste sei tabernetan ere bai. Igandeko egitarauari dagokionez, aurtun jada oso berria izango da, indartu egin da, baina larunbateko baino askoz lasategiago izango da: bertso bakarra, DVD emanaldia eta herriko Makulu Ken taldearen Agurrak Etxeko taldearen konzertua nabarmendu ditazte-ke egitarauan.

Sortu zenean gatu bateko jaialdia zen Multimusikala, asteburu osoko egitarau zabal eta oparota bilakatu da zortzi urte ondoren. Iaz ikusi ziren, igandean ere zenbat ekitaldi antolatu baitziren, eta aurtun jada asteburu multimusikala finkatu egin da bi eguneko egitarauarekin. Gainera, Multimusikala antolaten duen taldea Kultur Elkarre bihurtu da, eta beraz urtean zehar ere beste hainbat ekitaldi antolatu eta herriko musika taldeei laguntzeko prest izango dela aurreratu dute.

### Autogestioa

Antolatzailerak lan handia egin dute zuzen bilibeteetan eta arazorik ghehun finantzaketak eman badire ere. Itzarpenen zuzen daude eta uste dute beharrez-koak izango direla, antoiatu dituzten kontzertu eta bazkarietan hainbeste bizitzan dituen herritarrek parte hartzen baldin badu beharria.

Herriko komertzio eta den-deri-laguntza eskatu diete, ahal

eta, jende askok apurtxo bat emanda ere asko lortu zitkeela uste du, hori zen antolatzaileek duten ideia. Beraz, laguntza txikiak ere esker on handiz hartu dituzte eta guri falta dute finantzaketa zuzentzeko.

Herriko denda eta tabernen laguntza azpimaratzeko izan da parte hartzeko gogoaz azalduko den ideia. Horri esker, larunbateko bazkaria, pinxto dastatze eta beste hainbat gauza antolatu ahal izan dituzte antolatzaileek Multimusikalaran egitarauaren barruan.

Dena den, Multimusikalarri laguntza nahi dutenak oraindik izango dute aukera aserbiaratu. Kontu korronte bat irekirik dute eta tabernetan barioa etxebotatzaileek laguntza eman dezakete. Aukerak salduko daude eta laguntza nahi duenak multimusikaleko KDa ere erosi dezake. Antolatzailerak aurreko multimusikaleraren parte hartu duten hainbat talderen musikarekin grabatu dute diskoak.

### Egitarau zabal

Egitaraia larunbateko bazkari herrikoianekin hasiko da. Bazkariak antolatu dira, baina hainbat kantu aurrerik eskerra ekitaldia, "Sorkuntza aske eta herrikoia sustatu" leloa izango duen proiektu baten barnean. KDa eta bazkariaren nazioareko artisten emanaldia; Peru, Kuba eta Valentziako kantari, umoregile eta musikariak.

Astrikaldie eta gauetan bost tabernetan izango dira kontzertuak, 17:30ean hasita aurrerantz hurren, jaigi, Sustrai, Xirimiri, Obelix, Udaberri eta Abend-en; Timon tabernetan. Karaokea bakanbeste bizitzan dituen lagunengan da egin osoan, eta gaurer zehar DJk jarriko du tabernetan, Obelix, Ilargi eta Jaigi

Asteburu honetan, bilar eta etzi, Multimusikala jaialdia, eguingo da Lasarte-Orian. Asteleheneran Santo Tomas eguna izango da.



triki-balaparta taldeak grotuko buruan arantsaldeko 19:00ak inguruan hasiko da jaialdia eta bat egingo dute bertan eta bazkariaren barnean. Astelehenera, Aldeberri, Amaia Agirre, Miren Arriaga eta Ane Labaka bertso-lariak arituko dira kantuan eta Estivu Ezagirre gaitik jartzzen Gheibek Txapelketa Nagusian aritu dira eta bertsozarako puntu puntuan dandean, ber-bera sarria ere maita onetako izango dela uste da.

Bertsoaren ondoren, behin iluntzen duentean partaila erraldioi batean "Zertarako amuztu" Berr Txarrak taldearen buruzko Rockumentala eskai-

niko da eta azkenik Makulu izango eskainiko dute. Lanurbateko bazkari herrikoirako eta igandeko paela jenerako txantalek Ilargi, Jaigi, Obelix eta Sustrai tabernetan daude salgai, langileek 15 euroren truke bazkaldirako dute eta langabeteak 10 euro. Andatza plazako gunea Herriaren arteko Kultur Azoka

## '40 de fiebre' taldeko Juan Mari Cerezori omenaldia

Istripuz hil zen '40 de fiebre' taldeko gitonista Juan Mari Cerezori omenegiz, 28 talderen abes-olaren KDa atara dute herriko musikari bazuek eta hiru euroan salduko da multimusikalaran. KDa den diren taldeak ezagunak dira Lasarte-Orian: '40 de Fiebre', Cerezoren taldea zenak "Zulu" grabatu du; Bond22-k, "Cruda realidat"; Potrogorra-k, "Bixtan artean"; Aramatzka-k, "Bixtan artean"; Casangre-k, "Another reason"; Tokiak-k, "Zen da?"; Obito-k, "Ivan"; Karraua Bobilla da-k, "Bizitza"; Txakurak-k, "Urbi et Orbi"; Gaudo Itzalak-k, "Cezuraren egak"; Zona Montona-k, "Años 80"; Kalean-k, "Lueve"; Straight to Mountain-k, "Last Minute"; Oztropo-k, "Egunero"; Desperado-k, "Hegoamerika"; My Own Truth-k, "Si no puedo"; The Invincible Taldea-k, "Coizze"; Basurdek, "Ansias de con-sumo"; Geratir, Youth-k, "El espíritu permanente"; Zama-k, "Ihesa"; Aukak-k, "Bizi bizitza"; Ka patzjak, "Ahorra"; Oskilua Poyunak, "Oskilua Poyunak"; Nibe-k, "Esqiladu txikiak"; POK-k, "TTC"; Anonimako 87-k, "Bazen dituen lekuak"; Bilechus-ek, "Welcome to Sarajevo" eta Makulu Ken taldeak, "Kokolo" eta Guztira, 28 kantu, 3 eurotan.



jarrilko dute bi egunetan: besteak beste Senegal, Peru, Sahara edo Valentziako produktuk salgai izango dira Multimusikalaran bertan jarru dute informazioa azoka berezi honetan.

### Valentziar koadrilla

Valentziako Carcaixent herritik 25 lagunekoa koadrilla dator. The Skarrais musikala taldea, Txabi Learre taldearen abale-nerok, pelotariak eta hainbat lagun etorriko dira, 300 bat eskeru egin dute laguntza eman kilo laranja ekarriko dituzte azokan banatzeko eta ehun lagun baino gehiagorentzat paela berrin asmatzeko dute.

**Kalitatea eta preziorik onena leku berean**

# Jalajai

— cafe bar

- GOSARIAK
- RAZIOAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXeko POITREAK
- PLATER KONBINATUAK

EGUNEKO MENUA

KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

TEL: 943 372760

Kiroletako oharrak

# ISU Leihoak taldea Gipuzkoako ligako lehenengo postuan

**Eguberrietako egutegia**

2009rako onartuta dagoen egutegiaren arabera, Lasarte-Oriako udal kirol instalazioak itxita egongo dira abenduaren 24an, 25ean, 31n eta urtarrilaren 1ean.

Errege Eguneko ospakizunen baitan, urtarrilaren 5ean kirol instalazioak irekita egongo dira 7:00etatik 12:30era, eta urtarrilaren 6an itxita egongo dira egun osoan.

**Ostadar bazkide kanpaina**

Ostadar Kirol Fundazioak 2010. urteko bazkide kanpainari ekin dio.

Bazkide txartela egin nahi duenak elkartekak Geltoki Kalea 25 zenbakian duen egoitzan egin beharko du, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara.

Bazkide egiteko azken eguna abenduak 23a izango dela ohartarazten du kirol elkar-teak.

**Ostadarreko otarraren zozketa**

Urtero bezala, Ostadarrek otar bat zozketatuko du bazkide guztien artean.

Beraz, guztiak adi abenduaren 23an 20:00etan, Ostadarreko atean eta [www.ostadarkf.org](http://www.ostadarkf.org) helbidean zerbaki irabazlea jarriko baitu elkar-teak.

**Ostadarreko bulegoa itxia**

Ostadar Kirol fundazioak jakin arazten du bulegoa itxita egongo dela Gabon bezperatik, abenduaren 24tik urtarrilaren 10a arte.

Lehenengo larunbatean eskuratu zuen, berriro ere, *ISU Leihoak* taldeak sailkapeneko burua, *Zarautz* taldeari 9 eta 1 irabazi ostean.

Eneko Molinaren taldeak hasieratik erakutsi zuen bere nagusitasuna. Bere erritmoa ezarri eta defentsan sendo ibili ziren.

*Zarautz* talde gazteak ez zuen aukera handirik izan. Atsedendira 3 eta 0 iritsi eta bigarren zatia lehenengo minutuetan erabaki zuten partida lasarteoriatarrek beste hiru gol sartuaz.

*Zarautz* atezainak baloia bere atean beste hiru alditan sartzen ikusi zuen. Hala ere, ez ziren borroka egin gabe etxera bueltatu eta *ISU taldearen* atean gola sartze lortu zuten.

**Partida bat gehiago**

Partida honetako puntuekin Eskolapioak taldea aurreratu zuen Eneko Molinaren taldeak sailkapenean.

Hala ere, kontuan hartu behar da Lasarte-Oriako taldeak partida bat gehiago jokatu duela eta puntu bakarra dagoela bi taldeen artean.

Gainera, aste honetan, *ISU Leihoak* taldeak atsedendia du. *Eskolapioak* aldiz, *Ceramicas Nogales Astigarraga* taldea sailkapeneko bosgarren taldearen aurka du partida.

Lehenengo itzulua amaitzeko hiru jardunaldi geratzen direla, lehia gogorra dute bi



*ISU Leihoak* taldea bi txapelketetan, Gipuzkoako Ligan eta Herriko txapelketan sailkapeneko lehenengo postuan dago.

talde hauek, *ISU Leihoak* eta *Eskolapioak*, sailkapeneko lehenengo postua eskuratzeko.

**Taularen erdialdean**

Denboraldia gaizki hasi bazuen ere *Aldaz H.K.* taldeak, Nazional B mailako sailkapen taularen erdialdean dago dagoeneko.

Estreinekoz ari da taldea maila honetan lehiatzen. Hala ere, lau partida irabazi eta bat berdin du eta mailari eusten dio.

Lehenengo larunbatean, ordea, ez du zortea lagun izan talde lasarteoriatarrek.

Izan ere, Andoingo *Euskalduna* taldearen, sailkapeneko azkenaren aurka galdu baitzuen.

Asteburu honetan, aldiz, lehiakide gogorra izango du *Aldaz H.K.* taldeak, sailkapenean bigarren den *Concepto Createch*. Ea ezustekoa ematen duen.

**Herriko txapelketa**

Bestalde, Ostadarrek antolatzen duen herriko txapelketan ere, *ISU Leihoak* taldea dugu lehenengo postuan.

Gainera, lehiaketa ofizialean gertatzen den bezala,

*Lekuona-Mena* bigarren taldea puntu batera du, *Izarra bitxitogia* bi puntura eta *Izkiña*, *Buenetxea* eta *Epel* hirura. azken lau talde hauek partida bat gutxiago jokatu dute.

Aste honetan, 9. jardunaldia jokatu dute 22 taldeek eta partidak behoko agendan argitaratzen ditugu.

Gabonetan herriko txapelketak ez du ia atsedenic izango. Abenduaren azken asteburuan partidak jokatu dira, lehenengo faseko erdira iritsiaz, eta urtarrilaren 8an ekingo diote, berriro ere, lehiari, aste bete libre izan ostean. •

Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 19**

10:30ean, Ostadar-Vasconia (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Michelinen.

11:00etan, Zarautz-Ostadar (Partehartzte infantilak) Asti-Txiki, Zarautzen.

11:00etan, Elgoibar-Ostadar (Infantil txikiak, txapelidunen fasea) Mintxeta, Elgoibarren.

12:00etan, Ostadar-Urola (Jubenilen Ohorezko Maila, igoera fasea) Michelinen.

15:30ean, Ostadar-Internacional (I. Jubenila) Michelinen.

17:15ean, Ostadar-Tolosa (Erregional Gorena) Michelinen.

**Igandea 20**

10:45ean, Ekintza-Ostadar (I. Kadetea) Berio, Donostian.

12:00etan, Axular-Texas Lasartearra (I. Erregionala) Herrera, Donostian.

17:15ean, Luberri-Texas Lasartearra (I. Jubenila) Berio, Donostian..

**FUTBOL 7**

**Larunbata 19**

20:00etan, Donosti Dolphins-Spartak de Obelix (III. Maila) Cesar Benito, Donostian.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 19**

17:45ean, Aldaz H.K.-Concepto Createch (Nazional B maila) Kiroldogian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

**Michelingo areto-futboleko gunean**

**Ostirala 18**

20:30ean, Mingallon-Biyona

**Larunbata 19**

09:15ean, Goiz Argi-Izarra  
 10:15ean, Ilargi-Oria krist.  
 11:15ean, Jalaia-Epel  
 12:15ean, ISU Leihoak-Danena  
 13:15ean, Siglo XX-Viña del Mar  
 15:00etan, Morrison-IOB H.K.  
 16:00etan, Ainhoa- Lekuona Mena  
 17:00etan, Naiban-Okela

**Igandea 20**

10:00etan, Buenetxea-Izkiña  
 11:00etan, Obelix-Tragoxka

**SASKIBALOA**

**Larunbata 19**

9:45ean, Eskola kiroleko LH3 eta LH4ko gaztetxoek saskibaloiko topaketa dute Kiroldogian.  
 16:00ean, C. D. Internacional B-Jalai (Gizonezko seniorrak) Mons kiroldegia, Donostian.

**PILOTA**

**Larunbata 19**

10:00etan, Intza-Gazteleku (Eskuz banaka II. Seniorra) Irurako Trinketa, Iruran.

**ATLETISMOA**

**Larunbata 19**

17:00etan, LOKEko atletik partidetza mugabeko probetan parte hartuko dute Anoetako belodromoan.

**IGERIKETA**

**Larunbata 19**

10:30ean eta 17:00etan, Buruntzaldeko Igeriketa Taldeko gaztetxoek Gipuzkoako Klubean Kopan parte hartuko dute, Azpetian.

**Igandea 20**

10:30ean eta 17:00etan, Buruntzaldeko Igeriketa Taldeko gaztetxoek Gipuzkoako Klubean Kopan parte hartuko dute, Azpetian.

**TENISA**

**Larunbata 19**

16:00etan, Eskola kiroleko LH3 eta LH4ko gaztetxoek teniseko topaketa dute Michelinen.

## Egunero

### Erakusketa

SOKA ARTEAN, argazki erakusketa. Zirrikaren argazkiak. Jalgi kafe-antzoak, egun osoan.

### Erakusketa

DEFENSORES erakusketa Amnistia Internacional erakundearen eskutik abenduaren 19ra arte. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

### Erakusketa

NICU BARB ETA DANIELE MARELEREN Adierazpen konposatu margolanen erakusketa. Kulturetxeko kafetegian, 18:00etatik 21:00etara.

### Erakusketa

NATURAREN ARGAZKILARIAK 2009 lehiaketako argazkiak ikusgai, Kutxaren babesarekin abenduaren 22tik 30era arte. Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.


## Ostirala, 18

### Kontzertua

LOCO DE LUXE taldearen emanaldia. Abend kafe-antzoak, gaueko 12etan.

### Antzerkia

LAS VACACIONES DE JOSEFA antzezlanaren eskainiko da



## Mari Gorritxuren oporrak mendian

KLOWNTUZ! MENDIA! antzezlanaren eskainiko du Kili-Kolo taldeak. Bertan Mari Gorritxu hiriko pailazoaren abenturak ikusiko dira. Mari Gorritxu oporretan dago eta bere psikoa-nalistak estrez guztia kentzeko mendira joatea gomendatu dio. Baina mendira iritsi bezain laster, lekuz kanpo sentitu da; ez du mendia ezagutzen, ez du natura ulertzen...

GAUR, OSTIRALA 18  
JALGIN, 22:30EAN  
EUSKARAZ

Eusko Jaurlaritzak sustatzen duen Antzerkia bultzatuz programaren baitan. Sarrera: 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan eta 22:00etan, GAZTELANIAZ.

### Hitzaldia

IÑAKI PETXARROMANEK *Kubari* buruzko lau zertzelada hitzaldia eskainiko du. Zabaleta auzoan, 20:00etan, EUSKARAZ.

### Kantaldia

KUBAKO DUO JADEREN emanaldia. Aurretik, 21:00ean norberak eramanda, afari herrikoia egingo da. Edaria eta kafea auzo-elkartearen kontu. Zabaleta auzoan, 22:00ean.

## Larunbata, 19

### Kontzertua

VIII. MULTIMUSIKALAREN edizioa izango da Andatza plazan eta hainbat tabernetan. Kontzertuetz gain, azoka, bazkaria... e.a. izango dira. Andatza plaza, arratsalde eta gaua

### Kontzertua

ALBOKA, ALBOKA TXIKI ETA TXEPE-TXA abesbatzek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:30ean, BIETARA.

## Eskutitzak

### Fe y Alegria-Guatemala elkartearen esker ona

Abenduaren Gipuzkoako instituzio batzuk bisitatzeko aukera izan dut. Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako elkartearen bidez, hauekin guztiakin lankidetzara eta garapen proiektuak ditugu martxan. Institutuzio-lagun hau, Hirugarren Adina Hirugarren Mundurako, konprometu eta ereduzko eginkizuna egiten duten pertsonen zuzendua dago.

Fe y Alegria hezkuntza-fundazioaren egintzari esker 12.500 ume inguru eskolara doaz Guatemalan. 650 irakasle baino gehiagok, bere profesionaltasunari eta bokazioari esker, hezkuntza publiko eta kalitateko sustatu dute Fe y Alegria Guatemala-lako 7 probintzietan banaturik dituen 47 eskoletan. Asko dira ditugun proiektu eta beharrak. Asko dira ere lagundu eta haien elkarkidetzara ematen diguten esku lagunak.

Guatemala-lako Fe y Alegria fundazioko kideok Gipuzkoako Foru Aldundiari bereziki eskertuko nahi diogu gurekin izan duen ekarpena. Izan ere, Fe y Alegria Jocotánen duen barnetegiaren ikasleen giza-hezkuntza baldintzak hobetu baititu.

Gure eskerrak Hernaniko Udaletxeari eta Karmelo Labaka Institutuari ere egingo dugu ekarpenagatik; 6 tornu eta 70 ordenagailuzko materiala. Baita Donostiako Udaletxeari egin dituen sentibiltate solasaldiengatik, eta Hondarribiko Udaletxeari.

Merezimendu berezia egiten diogu Lasarte-Oriako Parrokien arteko Misio taldeek antolatutako afari solidarioari. Bertan lortutako diruak heziketa materiala Guatemala-eramateko edukiontzien lekualdatzara ahalbidetuko baitigu.

Gipuzkoako herriaren eta instituzioen eskuzabaltasunaren partaide izan naiz egunotan. Herrien arteko lankidetzara indartzeko momentuak izan dira. Bidezko eta elkartasunezko mundu baten esperantza isladatzen duten eremuak.

Eskaizten didazuen aukera baliatuta guatemalaren esker ona aditzera eman nahi dizuet. Eguberri on eta 2010. urte oparoa eta ilusioz beterikoa izan dezazuela. Esker handiz,

P.Miquel Cortés Bofill s.j.  
Fe y Alegria-Guatemalako zuzendari orokorra

## Oharrak

### Euskal Herriko Kirolariak

Euskal Herriko Kirolariak abenduaren 27an *Kirol Harria* jaialdia antolatuko dute Donostiako Velodromoan. Jaialdia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta babesaren despedida, soberan geratu zen diruarekin loteria erosi dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Bi loteria mota erosi dira: abenduaren 18rako, ONCEko zozketarako 18.738 zenbakia (9 euro) eta Gabonetako loteria, 22rako, 42.089 zenbakiarekin (360 euro).

### Goiegiko bazkaria (Zubiko-en despedida)

Abenduaren 13an Goiegik jate-txean ospatu zen bazkarian, Zubi tabernakoaren despedida, soberan geratu zen diruarekin loteria erosi dela jakinarazi nahi dute antolatzaileek. Bi loteria mota erosi dira: abenduaren 18rako, ONCEko zozketarako 18.738 zenbakia (9 euro) eta Gabonetako loteria, 22rako, 42.089 zenbakiarekin (360 euro).

### Olentzeroko entsaioak

Olentzeroren etorrera dela-eta, Lasarte-Oriako inguruko base-rietan barrena kantari atera nahi duenak aurtien ere aukera paregabea izango du Erketz EDTekin. Horretarako bi entsaio antolatuko dituzte, bata gaur, abenduaren 11n eta bestea hurrengo ostiralean, 18an.

Entsaioak Zumaburu eskolan izango dira 20:00etan.

### Bertsoporraren emaitza

Bertsolari Txapelketa Nagusiko Finaleko bertsolarien sailkapen osoa ez zuen inork asmatu, baina bi pertsonen puntutan pare geratu ziren. 20na puntuarekin, Donetz Iradik eta Olatz Urdanpilletak irabazi zuten Berto-Eskolak antolatutako bertsoporra. Zorionak bie!

### EHNarekin arazoak izan badituzu

EHNarekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektronikoa honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

### Multimusikalari laguntza

Multimusikalari laguntzeko antolatzaileek bonoak jarri dituzte salgai tabernetan. Bi bono mota daude, Kuadrillentzako 50 eurotakoak eta banakoa 20koa. Erriaf ere aterako dituzte. Honetaz gain kontu korronte honetan ere dirua sartu dezake nahi duenak: 2101 0048 20 0125573386. Animatu zaitezte Multimusikala aurrera ateratzen!

### XVII. Jaiotzen Lehiaketa

Danok Kide Guraso Elkarteak Jaiotzen Lehiaketako XVII. edi-

zioan parte hartu nahi duenak, jaiotza abenduaren 19an eta 20an, Guraso Elkarteak Blas de Lezo kalean duen egoitzan utzi behar du, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak bitartean.

### Ordulari bat galdu da

Azaroaren 21ean emakumezkoen ordulari bat galdu zen herriko erdigunean. Korrea beltza du eta borobila da. Topatu duenak mesede, deitu dezala: 943 362632.

### Marrakizi eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrakizi eta margo eskolan plaza badaudenez, oraindik izena emateko aukera dago kulturetxeko 2. solairuan arratsaldeko 18:00etatik 19:00ak bitartean, asteleheneran, ostiralean eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

### Eskolarik ez gabonetan

Abenduaren 25 eta 26an eta urtarrilaren 1, 2 eta 6an ez da eskolarik emango kulturetxea itxita dagoelako.

### Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHilko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!



**Egunkariaren alde manifestazioa Bilbon**

**Abenduaren 19an, Aita Donostia plazatik 17:00etan**

**Azaldu zaitez!**

**Autobusa aterako da Lasarte-Oriatik 14:45ean, anbulatorio zaharretik**

**Txartelak Jalgin eta Ttakunen**

**www.egunkaria.info**

Munduan libre bizi ahal izateko  
**Egunkaria Libre**  
munduan bizi ahal izateko

### Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858  
txintxarri@txintxarri.info  
txintxarri@ttakun.com

# Hondakinak murrizteko kontzientziazio kanpaina berria abian da

■ San Markos Mankomunitateko 10 udaletako herritarrei zuzenduta dago

**H**ondakin gutxiago sortu behar dela azpimarratzen dute behin eta berriz San Markos Mankomunitatetik, ekimen ugari bultzatzen dituzte prebentzioaren alorrean jarduteko. Berrerabiltzenerako jarduerak sustatzen dituzte eta ildo horri jarraiki hondakin onena sortzen ez dena leloa dute printzipio fundamentalak.

Ba al zenekien gutako bakoitzak 1,3 kilo hondakin sortzen dituela egunean? Era berean, sortzen ditugun hondakin kopuru osoa urtetik urtera handitzen jarraitzen du.

San Markos Mankomunitatea arazo horren irtenbidea aurkitzen saiatzen da. Hone-lan, prebentzioari helduz, kanpaina berria martxan jarri dute mankomunitatea osatzen duten 10 udaletako herritarrei zuzenduta.

## Prebentzioa jomuga

Hau ez da San Markos Mankomunitateak prebentzioaren alorrean burutzen duen ekimen bakarra, merkatu birtuak, propagandarik ez, apurrak ere ez uzteko erreze-ta-bilduma... abian ditu.

Oraingo honetan *Hondakinak murriztu eta aurrezkiak handitu* izango da kanpainaren mezu nagusia.

Iraunkortasunari mesede egiteaz gain, herritar bakoitzarentzat ere mesede nabarmena ekarriko du, aurrezpena areagotuko duelako.

## Gabonak datozela...

Urteko kontsumorik handieneko indizea gabonetan aurkitzen da eta ondorioz, hondakin gehien sortzen dugun garaia da.

Hori horrela izanik, Eguberriak baino lehen prebentzio-mezuak plazaratzearen garrantzia ikusi zuen Mankomunitateak.

## Edukiontzia biziberrituz

Abendu eta urtarrilean, San Markos Mankomunitatea osatzen duten udal guztietako edukiontzia eta paperontzia pertsonalizaturik agertuko zaizkigu. *Biziberrituz* izeneko kanpainaren ezagutarazle bihurtuz.

Edukiontzia mota bakoitza, bai organikoa, bai ontziak, bai beira, bai papera... pertsonalizatuta egongo da, begiak irudikatu nahi dituzten binilo



Edukiontzia pertsonalizatu dira birziklapenaren kontzientziazio kanpaina berrirako.

batzuen bidez.

Era berean, komikien erako bunbuilu batzuetan, bertan sartzen den hondakin motari berezkoak zaizkion adibideak egongo dira.

Eta, honetaz gain, herritarrei hainbat truko eta gomendio eskainiko zaizkie sortutako hondakinak murriztu edo aurrezteko.

## Mezua adibide

Esate baterako, "Erabilitako olio gordetzeko berrerabiltzazu beirazko ontziak. Hondakinak eta dirua aurreztuko duzu, bai ontzia eta bai olio berrerabiltz," izango da beira-aren edukiontzietan irakurri ahal izango den mezuari-ko bat.

## Gida osatua interneten

Hau guztiaz gain, Mankomunitateak [www.hondakin.org](http://www.hondakin.org)

helbidean, hondakinak murrizteko mikrosite gida eta jolasa prestatu ditu.

Gida bertan kontsultatu edo PDF formatuan deskargatu daiteke.

Honetan, hondakin sorrerako prebentzioarekin loturiko gaiak datoz, erosketara gaituz eta berrerabiltzera bultzatzeko.

Atal ezberdinak daude gidan, hala nola, *Hondakinak gutxitu eta dirua aurreztu*, bertan aholkuetatik aparte, zenbait adibide irudikatu dira.

Mankomunitateak, merkaturako azterketa konparatiboa ere egin du, non prezioak, ontzien eta bilgarrien ezaugarriak, produktu berarentzako dauden alternatibekin bildu diren.

Honetaz gain, berrerabiltzenera lotuta, eta gomendioak praktikan jartzeko

intentzioarekin salerosketarako eta konponketarako establezimenduak eta saltokiak zerrendatu dira.

Era berean, produktu toxikoentzako alternatiba ekologikoak ere jasotzen dira mankomunitateak argitaratutako gidan.

## Zaborra murriztera!

*Hondakin sasoian jarri* izeneko jokoak ere aurkituko dugu webean.

Galdera-sistema didaktiko baten bitartez, hondakin erdira nola murriztu daitezkeen jakin daitezke.

Gainera, ikasteaz eta kontzientziazteaz gain, parte-hartzaile guztien artean hiru BH bizikleta tolesgarri eta Forum Sporten 20 euroko 100 txartel zozketatuko dira. Ez galdu ikasi eta sari batekin egiteko aukera. •



Herriko edukiontzietan jada aurkitu ditzakegun mezuari-ko bat

foto depilazioa argi pulsatuarekin

- Era guztietako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin kalea, z/g • Tel.: 943 370845  
Lasarte-Oria

MAiTE

ESTETIKAKO ARETOA

